

## A2.1 MAILA

### Palomitak bai, palomitak ez.

---

Sekuentzia honetan landuko duzun elkarrizketa zinemarako sarreran gertatzen da. Eta horren bueltan, **jarduera hauek** egingo dituzu.

- Audioa entzun bitartean, egiak eta gezurrak identifikatu.
- Audioa entzun bitartean, galderen erantzun zuzenak identifikatu.
- Audioa entzun ondoren, elkarrizketa labur bat esapide egokiekin osatu.

# Gezurra ala egia da?

Amaia eta Josu zinema-ilaran daude, beraien lagunekin. Zer gertatu da? Entzun elkarrizketa eta bitartean identifikatu **egiak eta gezurrak**. Ondoren, saiatu gezur horiek zuzentzen.

	EGIA	GEZURRA
Amaiak Litxarreriak jan nahi ditu eta Josu haserretu da berarekin.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Josuren ustez zinema-aretoa beteko da	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Josuri litxarreriak ez zaizkio gustatzen.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Amaiak errieta egin dio Josuri, palomitak eskatu dituelako.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Amaiak eta Josuk oso gutxitan eztabaidatzen dute.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

# Zer esan dute une horretan?

Entzun berriro audioa eta bitartean, galdera hauen erantzun zuzenak aukeratu behar dituzu.

1. Filmari buruz ari da. Zer esan du Josuk?

- Sekula ez dut ikusi!
- Sekulako jendetza dago!
- Sekulakoa da, ikusiko duzu!

2. Jende asko dago, eta Amaia larritu egin da. Zer esan du Amaiak?

- Goazen barrura... lekua hartu beharko dugulako.
- Hau da jende pila!
- Palomitak eta freskagarriak hartuko ditut.

3. Josuk palomitak erosi nahi ditu, eta Amaiak haserre hau esan dio:

- Ospa hemendik!
- Zurekin alferrik da!
- Beti errietan zurekin!

4. Amaia eta Josu haserre jarri dira eta Alexek lasaitzeko hau esan die:

- Hobe izango da, bai!
- Ez haserretu, txantxetan da eta!
- Arrazoi duzue!

# Osatu elkarrizketa esapide hauekin

Amaia haserretu egin da Josurekin beti litxarreriak jaten dituelako. Osatu audioaren antzeko elkarrizketa hau dagokion esapidearekin. Ariketa egin baino lehen, irakurri beheko adibideak.

AHOLKUAK EMATEKO: Komeni aditza	AGINDUAK EMATEKO : agintera
<p>Aditza + -t(z)ea komeni zaizu</p> <p><i>Ondo jatea komeni zaizu</i></p> <p>Ez zaizu komeni aditza + -t(z)ea</p> <p><i>Ez zaizu komeni litxarreriak jatea.</i></p> <p><i>Josu, ez zaizkizu komeni!</i></p>	<p><i>Ez jan litxarreriarik!</i></p> <p><i>Ez egin kasurik!</i></p>

## PALOMITAK BAI, PALOMITAK EZ

JOSU.- Dena prest duzue? Beno, nik txokolatea, eta madalena batzuk hartuko ditut. Ados?

AMAIA.- \_\_\_\_\_. Mendan ez ditugu behar.

ANE.- Bai, Amaiak arrazoi du! Josu, litxarreriak \_\_\_\_\_

JOSU.- Nahikoa da! Zuekin beti berdin! Hau komeni zaizu, hau ez zaizu komeni...

ANE.- Ez esan tontakeriarik, eta \_\_\_\_\_. Berandutu egingo da.

AMAIA.- Beno, beno, Ane, \_\_\_\_\_. Ez da hainbesterako!

JOSU.- \_\_\_\_\_ Nahikoa da!

## Aukerak

Ez haserretu / Zu beti litxarreriak jaten! / ez zaizkizu komeni / Isildu behingoz! / goazen kotxera

## TRANSKRIPZIOA

AMAIA.- Azkenean lortu duzu, Josu.

JOSU.- Sekulakoa da, ikusiko duzue. Eta begira zenbat jende, bete egingo da aretoa.

AMAIA.- Goazen barrura... lekua hartu beharko dugu eta!

JOSU.- Itxaron pizka bat.

AMAIA.- Zer duzu orain?

JOSU.- Palomitak eta freskagarriak hartuko ditut denontzat, bai?

AMAIA.- Josu, ez zaizkizu komeni. Beti litxarreriak jaten. Hau da hau!

JOSU.- Tamaina txikia hartuko dut eta denon artean jango ditugu. Ados?

AMAIA.- Ez, beti errietan zurekin. Palomitek kalte egingo dizute.

JOSU.- Jooo, gutxi batzuk.

ALEX.- Aizue, zuek beti berdin zabilzate.

JUNE.- Bai, beti errietan, beti oihuka. Senar-emazteak ematen duzue.

ALEX.- Kar-kar!

AMAIA.- Guk? Bai zera!

JOSU.- Txorakeriak, Amaia, ez egin kasurik.

JUNE.- Zuek ez zarete, ba, bikotea izango, ezta? Kar-kar!

ALEX.- Edo okerragoa, ama eta semea: Josu bihurrikeriak egiten eta Amaia dena debekatzen!

JUNE.- Kar-kar! Arrazoi duzu, Alex!

JOSU.- Inbidia diguzue, eta kito. Amaiak eta nik sekulako konfiantza daukagu. Horixe da dena.

ALEX.- Ez zaitetzte haserretu, txantxetan da eta!

AMAIA.- ( lotsatuta) Tira, tira, goazen azkar, filma hasita egongo da eta!

JOSU.- Hobe izango da, bai. Baina palomitak hartuko ditut?

AMAIA, ALEX eta JUNE.- Ez!

# ERANTZUNAK

---

## GEZURRA ALA EGIA

- Amaiak litxarreriak jan nahi ditu eta Josu haserretu da berarekin

GEZURRA

- Josuren ustez cinema-aretoa beteko da

EGIA

- Josuri litxarreriak ez zaizkio gustatzen

GEZURRA

- Amaiak errieta egin dio Josuri, palomitak eskatu dituelako

EGIA

- Amaiak eta Josuk oso gutxitan eztabaidatzen dute

GEZURRA

## ERANTZUN ZUZENAK

1. Sekulakoa da, ikusiko duzu!
2. Goazen barrura... lekua hartu beharko dugu eta!
3. Beti errietan zurekin.
4. Ez haserretu, txantxetan da eta!

## **OSATU ELKARRIZKETA**

Zu beti litxarreriak jaten!

ez zaizkizu komeni!

goazen kotxera.

ez haserretu.

Isildi behingoz!